

BALIO PROPOSAMENA

Intergaztek, nobedade handia dakarkigu lehenengo euskal gaztetxe internazionalak izango dituelako mundu osoan. Izan ere, enpresa honek sortutako programako kideei beste herrialde batzuetako InterGazteetara bidaiatzeko aukera ematen du, herrialde horretako kultura eta hizkuntza ikasiz, eta jende berria ezagutzuz.



Gure zerbitzua erabat pertsonalizatua da, gure bezeroei egokitzen dien zerbitzua eskaintzen saiatzen garelako, gero eta erosotasun handiagoa izan dezaten. Adibidez, adin txikikoek, ez dute adin nagusikoek izango dituzten jarduera berdinak izango, ezta finantziazio erraztasun berberak ere.

Gure enpresa gazteei zuzenduta dagoenez, haiei egokitutako prezioak jarriko ditugu. Horretarako, hileroko gure bezeroei kuota bat kobratuko diegu, bidaiak egiterako orduan, ordaindu beharko duten diru kantitatea oso handia izan ez dadin. Gainera, kuota horrek, tokiko gaztetxera nahi duten alditan sartzeko ahalmena ematen die.



Gure enpresaren bitartez, gazte guztiek atzerrira bidaiatzeko aukera izango dute, gazte bakoitzaren beharretan eta haren gaitasun ekonomikoetan oinarrituta.